
20 32

URGULLEKO MONUMENTUA

1950ean eraiki zuten, herri harpidetzaz, Urgull mendiko gainean, orduko San Cruz de la Mota hondatutako gazteluaren arrean. Jesusen Bihotzaren monumentua, horrenbestez, bai gaiarengatik eta bai estetikarengatik, garaiko eskultura ofizialaren erakusgaia da, Oteiza, Chillida eta bestelakoak buru diren eskultura abangoardiatik oso urrun.

Hala ere, nahiz eta hura instalatzeko aukeratu zuten lekua egokiena ez izan (Donostiako kultur ondarearen elementu garrantzitsu baten gainean) eta gaur egun Gizartearen gehiengoaren pentsamenduarekin bat ez egin, egia da, zalantzarik gabe, Hiriko paisaia eratzen duten elementuetako bat dela, Kontxa badiako inguruan.




Monumentuaren eta dagoeneko zaharberritutako Santa Cruz de la Mota gazteluaren gainontzeko sailen aire bista. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. B5m.

Monumentua 16 metro altuerako piramide moztu batek osatuta dago eta haren barruan kapera txiki bat aurkitzen da. Horren gainean, planta oktogonaleko idulki batean oinarrituta, Jesusen Bihotzeko estatua erraldoi bat dago (12,5 m altuera), eskuineko eskuz hiria bedeinkatuz eta beste eskuarekin bihotza seinalatuz. Hormigoi armatuaz egina dago.

Federico Coullaut eskutorea eta Pedro Muguruza arkitektoa deseinuan lankidetzan aritu ziren. Federico Coullaut-Valera Mendigutia (Madril, 1912 La Granja de San Ildefonso, 1989) aitarekin artistikoki prestatu zen, alegia; hura bezala eskultorea zen Lorenzo Coullaut. Sarritan, Aste Santuko prozesioetan erabiliko dituzten erlijio irudiak zizelkatu zituen, eta aitarekin batera, Madrilgo Plaza de España Cervantesen monumentua egin zuen.

Pedro Muguruza Otañok (Elgoibar 1893- Madril 1952), Herri Administrazioan aktiboki parte hartu zuen, Franco jeneralaren diktaduran, Arkitekturako Zuzendari Nagusi gisa, Gorteetan prokuradorea izateaz gain, bi legealditan eta baita Mugimenduko Kontseilu Nazionalaren kide ere.

Bere lanetako batzuk Erregimenarekin lotu dituzte, bereziki Valle de los Caídos proiektua, San Lorenzo del Escorialen (Madril) edo Jesusen Bihotzaren monumentuak, besteak beste, Donostiako hau eta Bilbokoa, ziur aski, karlismoak erlijio irudi honengatik zuen debozio bereziak bultzatutako eraikuntzak (Erregimenean nahita nahiez sartuta) eta, agian, tropa errepublikanoek Cerro de los Ángelesen zegoen (Madril) eta ondoren suntsitu zuten (1936ko abuztuaren 7an) Jesusen Bihotzaren monumentuari egindako fusilamentuaren kalte-ordain gisa (gutxienez eszenifikatuta eta argazkian irudikatuta).



Sta. Cruz de la Mota gazteluaren Monumentuaren ezarpena.


1. Jesusen Bihotzaren irudia.
2. Piramide moztuaren gailurra.
3. Piramide moztuaren oinarria.
4. Jardinera.
5. Eskailera.
6. Goi plataforma.
7. Gazteluaren plataforma.
8. XVIII. mendeko kuartela.
9. Gaur egungo kapera nagusia.
10. Goi plataformarako sarrera.




Monumentua 1950ean, oraindik aldamioarekin oinarrian. Argazkia. Paco Marí. Kutxa Fototeka CC By SA.



Jesusen Bihotza bere oinarritik, piramide moztuan ezarritako idulki oktogonal baten gainean.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. UTM 30N ETRS89 // : 581965 m. // Y: 4797402 m. Gaztelua Monumentua ezarri baino lehen. 1. Santa Cruz de la Mota gaztelua. 2. XVIII. mendeko kuartela (hondamenditan, plantarik eta teilaturik gabe). 3. Revellín (gotorlekuaren kanpo obra). 4. Gobernatzailearen sail zaharrak (hondamenditan). 5. Erreginaren kuboa. 6. SW plataforma. S.C. de la Mota gaztelua, hondamenditan iraun zuen 1963ra arte, zaharberritu zuten arte.



Hiri ortoargazkia 2007-2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gaztelua XXI. Mendean Monumentua ezarri ondoren. 1. Santa Cruz de la Mota gaztelua. 2. XVIII. mendeko kuartela ("Historiaren etxe" gisa zaharberrituta). 3. Begetazioak estalitako kanpo obra (Revellín). 4. Gobernatzailearen sail zaharrak. (kapera) 5. Doña Juanaren kuboa (monumentua horren gainean dago). 6 SW plataforma. Gazteluaren gaur egungo egoera eta, oro har, Urgulleko gotorleku guztienak, 1963. urtean burututako zaharberritze lanei dagokie.